

Gorpu bizi



Mikel Basabe
IRAKASLEA

Duela ia sei urte, gehiengoaren nahia behin-goiz betez, ETak iragarri zigun “bere jardue-ra armatua behin betiko amaitzea erabaki” zuela. Alegia, armak ez zituela berriro erabiliko. Aukera paregabea, aldebakartasunetik armok non zeuden esan eta erakundea desegiteko. Baina “irabazlerik eta galtzailerik gabeko eskeman” tematurik, errealitateari bizkar eman eta gurago izan zuen “Espainiako eta Frantziako gobernu dei” egitea, “gatazkaren ondorioei konponbide ematea helburu izango duen elkarrizketa prozesu zuzena zabaltzeko, konfrontazio armatua gainditu ahal izateko”. Espainiak paso egin zuen, noski: garaipena eskutan, hura iruditzen jartzea bilatzen du eta, negoziatu beharrean, ETari bete-beharreko baldintzak ezartzen dizkio, behin eta berriro.

Negoiazioaren ameskeriak gehixeago iraun zion ETari. Duela bost urte agenda-proposamen publikoa egin zien estatuei. Hiru gai:

- “Aipatu helburuak bideratzeari begira, honako elkarrizketa agenda proposatzen du ETak:
 - Euskal preso eta iheslari politiko guztiak etxeratzeko epeak eta formulak.
 - ETaren armagabetzearen, egitura armatuaren desegitearen eta militanteen desmobilizatzearen epeak eta formulak.
 - Euskal Herriaren desmilitarizaziorako urratsak eta epeak, Euskal Herrian dauden indar armatuak konfrontazio armatuaren amaierara egokituz”.

Hirurotan bakarra bete da, hain justu ETaren aldebakartasunetik bete zitekeen bakarra: ETak armak eman ditu, trukean ezer eskatu barik. Areago: eman ditu argi utzita trukean ez duela ezer eskatzen, eta jarritako baldintzak beteta. Ondoren, Espainiak jarraitu du etxerako lanekin: hurrengo, desegitea. Irakurri duela bost urteko agenda-proposamena tentuz: ETak ez zuen bere desegiteaz berba egin gura. Baina hori ere eman beharko du, Madrilek horrekin lotu baitu presoekin eskubideak betetzen hastea. Jakina: ez da justua. Baina Espainiak ez du inoiz ETako presoekin justua izateko asmorik izan: begiratu esaterako Parot doktrinari. Espainiak garaipenaren irudia gura du, ETak eman gura ez dion hori. Desegiteko exijitu dio erakunde desarmatuari. Denbora kontua baino ez da, desegite hori ematea. Aldebakartasunetik, bakarrik alde egitea baino ez baitzaio geratzen ETari. Zergatik ez zuen iragarri Baionako ekitaldian? Zertarako atzeratu hartu beharko duen erabakia? Pentsatzekoa delako desegitearen ondoren baldintza berriak etorriko direla: iheslariak epaileen aurrera agertzea, “justiziarekin” kolaboratzea... Bien bitartean, denborak aurrera egingo du, eta presoak, zigorra beteta, irteten joango dira. Guztiak? Ez. Zigorrik luzeena dutenek kartzelan jarraituko dute, Espainiako Gobernu aldatu eta ETaren memoria lausotzen den arte.

Irabazlerik eta galtzailerik gabeko eskeman tematzaren kalte-ondorioak, duela ia sei urte agindu zigiten aldebakartasunaren eskema utzi izanarenak. ■

Usteltzaileak



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Naturan ustelkeria prozesu positiboa da. Usteltzeari esker frutek azala eta mamia galduta eta haziak askatzen dituzte, gero lur-rean ernatu eta landareak sortzeko. Era berean, hildako animalia eta landareen gorpuak usteltzen laguntzen duten bakterioen lana ezinbestekoa da hilotzak desagerrarazteko, usteltzaileena, alegia.

Gobernatzen gaituzten estatu bietan ere ustela dago nonahi. Handiagoa batean bestean baino. Denon ahotan dabil aspaldian, baita komunikabideen portada, goiburu eta titularretan ere. Ustelduen irudiak azaldu dituzte. Naturan ez bezala, gizaki hauek usteltze horrekin kaltea baino ez dute era-

gin, eta onura bakarra bere kide ustelduentzako besterik ez da izan. Eta usteltzaileentzako.

Dena den, albiste hauen artean deigarriena zait esaten ez dena, isilean gordetako. Izan ere, ustelduen izenak zabaltzen dira lau haizetara, baina usteltzaileenak inork ez ditu ematen. Eta naturan bezala, usteltzaileak ezinbestekoak dira ustelduak egon daitezen. Izadian ere sarraskijale eta bakterio horiek premiazkoak dira ustela sortzeko. Pertsonen artean ere hala da. Usteltzaileak sortzaile eta eragile dira ustelkeria prozesuan. Jaun eta jabe gizartean, boterea eta dirua dutelako. Bestela, nork azaldu isiltasun hori? ■